



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Usansoloko Udala

2024-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketaren onespena

Usansoloko Udalaren Osoko Bilkurak, 2026ko apirilaren 23an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

Lehenengoa: 2024-2028 aldirako Dirulaguntzan Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea, 10. Zenbakia duen dirulaguntza berria sartzeko.

Bigarrena: 2024-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.

Usansolon, 2026ko apirilaren 27an.— Alkatea, Juan Agustin Aizpuru Izagirre

**DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA****1. Sarrera**

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, DLO), 8-1 artikuluan, honako hau xedatu zuen oinarrizko legedi gisa:

- «1. Administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duen beste edozein erakundek, aldez aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte dirulaguntzen aplikazioarekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.»

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorraren (aurrerantzean, SKS) 10. artikulutik 15. artikulura bitartekoek garatu zuten transkribatutako manua, eta Estatuko oinarrizko legeria ez diren arren, toki-administrazioei modu osagarrian aplikatu behar zaizkie, gure kasuan ez baitago horri buruzko araudi autonomikorik.

Aipatutako lehen erregelamendu-aginduak honela ezaugarritu ditu dirulaguntzen plan estrategikoak: «... politika publikoak planifikatzeko tresna bat dira, onura publikoko edo interes sozialeko jardura bat sustatzea edo helburu publiko bat sustatzea xede duena».

Dirulaguntzen araubide berri bat eraikitzeko, nahitaezko plangintza- eta programazio-tresna formulatu behar da. Horri erantzuten saiatzen da Plan Estrategiko hau.

2. Helburu estrategikoak**2.1. Helburu orokorra**

Adierazi den bezala, helburu orokorra dirulaguntzak arautzeko udal-esparru arauemailea sortzea da.

2.2. Helburu estrategiko zehatzak

- a) Dirulaguntzen ildoak sistematikoki definitzea eta antolatzea.

Horretarako, hainbat arlo bereizi behar dira, hau da, sustapen-ekintza gauzatu nahi den udal-administrazioaren esku-hartze materialeko eremu tematiko handiak. Arlo bakoitzaren barruan, dirulaguntzen lerroak zehaztu beharko dira. Halakotzat joko dira arlo bakoitzean zehaztu beharreko eremuak, zer diruz lagundu nahi den, zertarako eta nori zuzentzen zaion dirulaguntza. Xedea, helburua eta onuradun posibleak zehazten dituen bloke baten mugaketa bakoitza dirulaguntza lerro bat izango da edo osatu ahal izango du. Ildoak definitzetik abiatuta, haien multzokatze edo antolamendu sistematikoari ekin behar zaio konparazio bidez, elementu komunak eta askotarikoak aurkituz, eta horrek aukera emango du dirulaguntzen harreman juridikoaren kudeaketa-arazoak konpontzeko erabakiak hartzen joateko.

- b) Administrazio-prozedurak normalizatu, arrazionalizatu eta sinplifikatzea.

Prozedurazko gaien garrantzia dela eta, guztiz indibidualizatutako helburutzat hartzen dugu. Orokorrean, prozedurez ari gara, dirulaguntzen harreman juridikoaren bi uneetako bakoitzari erantzuten dioten bi prozedura-multzo handiak aipatzeko: emakida-prozedura eta egiaztapen- eta justifikazio-prozedura. Pluralaren arrazoa da, halaber, bi multzoetako bakoitzean prozedura bat baino gehiago egon daitezkeela – eta egongo dira –, suposizioen aniztasunaren arabera. Proposatutako eragiketa hirukoitzari dagokionez: «Normalizazioa» da prozedura multzo funtsean homogeen bakoitzerako «iter» edo sekuentzia bera definitzea eta zehaztea. «Arrazionalizatzea» da izapideak modu egokian hautatzea, kontzeptualki eta praktikoki. Azken batean, «sinplifikazioa» arrazionalizazioa aplikatzeko modu espezifiko bat baino ez da, beharrezkoa ez dena ezabatzerantz bideratuta dagoena.

**3. Dirulaguntza lerro desberdinen definizioa eta antolamendu sistematikoa****3.1. Dirulaguntza lerroen antolamendu sistematikoa**

Atal hau egiteko, aurreko ataleko arauen zerrendako edukiak aztertu dira (batez ere, diruz lagundu daitezkeen objektuei, dirulaguntza bakoitzaren helburuei eta onuradun izan daitezkeenei buruzkoak). Hori guztia etorkizunean mantendu nahi diren dirulaguntza lerro bakoitzaren definizio esplizitu batzuk ezartzeko helburuarekin (dokumentu honetako 3.2 atalean aurkezten diren definizioak), eta definizio horiek orden egituratu baten jarritz, dirulaguntzen kudeaketaren inguruan erabaki posibleak aurrera joan daitezten.

Onura jasoko duten arloak, ildoak eta pertsonak edo erakundeak Áreas y Líneas y beneficiarios	Emateko prozedura Procedimiento de concesión
1. KULTURA / CULTURA	
1.1. Kulturako, aisiako eta astialdiko jarduerak, programak eta proiektuak, taldeei, elkartei eta pertsona fisikoiei zuzendutakoak (gazteak eta hirugarren adinekoak barne hartuta) Actividades, programas y proyectos culturales, ocio, tiempo libre (incluye juventud y tercera edad). Beneficiarios grupos y asociaciones, pero también personas físicas.	IZENDUNAK NOMINATIVAS
1.2. Taldeek eta elkarteek egindako jaiak (urteko jaiak, eta herriko eta auzoko jaiak antolatzea) Fiestas (Organización de fiestas anuales, patronales y barrios). Beneficiarios grupos y asociaciones.	IZENDUNAK NOMINATIVAS
1.3. Musika ikasteko banakako bekak (homologatutako lekuetan) Becas individuales al estudio de música (en lugares homologados) Beneficiarios personas físicas	LEHIARIK GABEKO KONKURRENTZIA CONCURRENCIA NO COMPETITIVA
2. KIROLAK / DEPORTES	
2.1. Taldeek eta elkarteek kirola sustatzeko eta egiteko antolatutako jarduerak, programak eta proiektuak Actividades, programas y proyectos de promoción y práctica del deporte realizadas por grupos y asociaciones Beneficiarios grupos y asociaciones	IZENDUNAK NOMINATIVAS
3. HEZKUNTZA / EDUCACIÓN	
3.1. Ikastetxeek eta gurasoen elkarteek antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak eta hezkuntzako jardura osagarriak Actividades extraescolares y educativas complementarias realizadas por el centro educativo Beneficiario centro educativo	IZENDUNAK NOMINATIVAS
4. EUSKARA / EUSKARA	
4.1. Taldeek eta elkarteek euskara zuzenean sustatzeko antolatutako jarduerak, programak eta proiektuak. Actividades, programas y proyectos de promoción directa del Euskara por parte de grupos y asociaciones Beneficiarios grupos y asociaciones	IZENDUNAK NOMINATIVAS
4.2. Euskara ikasteko banakako bekak (uda-euskaltegian edo beste leku batzuetan ikasteko) Becas individuales al estudio del euskara (en Euskaltegi municipal y en otros lugares) Beneficiarios personas físicas	LEHIARIK GABEKO KONKURRENTZIA CONCURRENCIA NO COMPETITIVA
5. BERTINTASUNA / IGUALDAD	
5.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak, programak eta proiektuak, taldeei eta elkartei zuzendutakoak Actividades, programas y proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres. Beneficiarios: grupos y asociaciones	IZENDUNAK NOMINATIVAS
6. GIZARTE EKINTZA / ACCION SOCIAL	
6.1. Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, pertsona fisikoiei zuzendutakoak Ayudas de Emergencia Social (AES). Beneficiarios personas físicas.	LEHIARIK GABEKO KONKURRENTZIA CONCURRENCIA NO COMPETITIVA
6.2. Elikagai bankua eusteko laguntzak Ayudas para la sostenibilidad del banco de alimentos Beneficiarios: grupos y asociaciones	IZENDUNAK NOMINATIVAS
7. AUZOKOEN PARTE-HARTZE / PARTICIPACION VECINAL	
7.1. Auzoko elkartei eusteko laguntzak Ayudas al mantenimiento de Asociaciones Vecinales. Beneficiarios: asociaciones	IZENDUNAK NOMINATIVAS
8. INGURUMENA ETA OSASUNGARRITASUN PUBLIKOA/ MEDIO AMBIENTE Y SALUBRIDAD PÚBLICA	
8.1. Animalien ongizatea bermatu nahi duten elkartei laguntzak Ayudas a asociaciones que velan por el bienestar animal Beneficiarios: grupos y asociaciones	IZENDUNAK NOMINATIVAS



Onura jasoko duten arloak, ildoak eta pertsonak edo erakundeak Áreas y Líneas y beneficiarios		Emateko prozedura Procedimiento de concesión
9. MERKATARITZA /COMERCIO		
9.1 Herriko komertzioa sustatzeko laguntzak Ayudas para impulsar el comercio local Beneficiarios: grupos y asociaciones		IZENDUNAK NOMINATIVAS
10. KOMUNIKABIDEAK/MEDIOS DE COMUNICACIÓN		
10.1 Eskualdeko eta herriko komunikabideak sustatzeko laguntzak Ayudas para impulsar los medios de comunicación de la comarca y locales		IZENDUNAK NOMINATIVAS

3.2. Dirulaguntzen lerroen definizioa

3.2.1. 1.1. lerroa. Kultur jarduerak, programak eta proiektuak

- Xedea: kultura, artea, zientziak eta letrak sustatzeko, hedatzeko eta praktikatzeko programak, proiektuak eta jarduerak finantzatzea, besteak beste, honako jarduera hauek barne hartuta: animazio soziokulturala, aisialdia eta denbora librekoa, 1.2 lerroan sartzen ez diren ikuskizunak eta jai-ekitaldiak antolatzea, tradizioak eta folklorea berreskuratzea eta mantentzea, azterlanak eta ikerketak egitea eta zabaltzea, eta euskal kulturaren sustapenari erreferentzia egiten dioten guztiak.
- Nori zuzentzen zaizkion: Usansolon edo udalaz gaundiko programetan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteak, Usansoloko biztanleei zuzenean eragiten dietenak. Usansolon jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoak eta nortasun juridikorik gabeko taldeak ere onartzen dira.

3.2.2. 1.2. lerroa. Auzoetako herriko, urteko jaiak eta asteburu kulturalak

- Xedea: Herriko jaien eta Usansolo auzoetako urteko jaien egitarau osoaren antolaketa finantzatzea.
- Nori zuzenduta: auzo-elkarteak eta kasu bakoitzean urteko jaiak edo aldizkakoak antolatzeko helburu espezifikoak duten erakundeak.

3.2.3. 1.3 lerroa. Banakako bekak homologatutako eskola eta kontserbatorioetan musika ikasteko

- Xedea: Musika ikasketa sustatzea, musika eskola eta kontserbatorio homologatuetan egindako musika prestakuntzaren kostuaren zati bat ordaintzeko banakako bekak emanez.
- Nori zuzentzen zaion: banakako pertsona fisikoei.

3.2.4. 2.1. lerroa. Kirol programak, proiektuak eta jarduerak

- Xedea: kirola sustatzeko, zabaltzeko eta praktikatzeko programak, proiektuak eta jarduerak finantzatzea, besteak beste, aisialdiko eta denbora libreko kirol-animazioko jarduerak, kirol-ikuskizunak eta -ekitaldiak antolatzea, emakumeen kirol-jarduera sustatzen duten programak, eta kirola aukeratzean eta egitean genero-estereotipoak ezabatzea, kirol-tradizioak berreskuratu eta mantentzea, kirol-arloko azterlanak eta ikerketak egin eta hedatzea, eta gure euskal kirolaren sustapenari erreferentzia egiten dioten guztiak.
- Nori zuzentzen zaizkion: Usansolon edo udalaz gaundiko programetan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteak, Usansoloko biztanleei zuzenean eragiten dietenak. Usansolon jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoak eta nortasun juridikorik gabeko taldeak ere onartzen dira.

3.2.5. 3.1. lerroa. Eskolaz kanpoko eta hezkuntzako jarduera osagarriak

- Xedea: eskolaz kanpoko eta hezkuntzako jarduera osagarriak finantzatzea, hau da, ikastetxe publikoek egiten dituztenak edo hezkuntzaren arloan eskumena duen administrazioak finantzatzen dituenak. Laguntzek askotariko helburuak dituzten proiektu espezifikoak, programa bereziak edo eskolaz kanpoko jarduerak



finantzatu ahal izango dituzte (osasunean eta aisialdian hezteak, kirola, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko hezkidetza-programak, irakaskuntzaren kalitatea sustatzea eta eskola-kudeaketa hobetzea, gurasoen eskola, etab.). Inbertsio zehatzen kostuak ere finantzatu ahal izango dira (ohikoa ez den material didaktikoa, bi urteko haurrentzako langile laguntzaileak, etab.).

- b) Nori zuzenduta: Usansoloko udalerrian dauden irakaskuntza publikoko ikastetxeak. Udalerrikanpo dauden baina Usansoloko udalerrian errolatuta dauden ikasleak matrikulatuta dituzten irakaskuntza publikoko ikastetxeak, baldin eta dagokien udalarekin hezkuntza-arloko administrazio-hitzarmena badago.

3.2.6. 4.1. lerroa. Talde eta elkarteak euskara sustatzeko jarduerak, programak eta proiektuak

- a) Xedea: Euskara zuzenean sustatzea helburu duten jarduerak, programa eta proiektuen finantzaketa. Hona hemen:
 - 1) Euskara hutsean egindako programak, jarduerak eta proiektuak.
 - 2) Euskara sustatzeko eta bultzatzeko programa, jarduerak eta proiektuak.
- b) Nori zuzenduta: Euskara hutsean egindako programa, proiektu eta jardueretarako dirulaguntzen kasuan: Usansoloko diharduten irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteak, eta nortasun juridikorik gabeko taldeak. Helburu bakarra euskara sustatzea eta bultzatzea duten programa, jarduerak eta proiektuen kasuan: Usansoloko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteak, edo udalaz gaindiko programak, Usansoloko biztanleei zuzenean eragiten dietenak.

3.2.7. 4.2 lerroa. HABE-k homologatutako lekuetan euskara ikasteko banakako beka

- a) Helburua: euskara ikastea sustatzea, HABE-k homologatutako ikastetxeetan egiten den hizkuntza-prestakuntzaren kostuaren zati bat ordaintzeko banakako beka emanaz.
- b) Nori zuzentzen zaizkion: banakako pertsona fisikoei.

3.2.8. 5.1. lerroa. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduerak, programak eta proiektuak

- a) Xedea: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-kuota handiagoak sustatzera bideratutako programak, proiektuak eta jarduerak finantzatzea, horien partaidetza handituz, bai eta gizarte oro har aukera-berdintasunaren inguruan sentibilizatzea ere.
- b) Norentzat: Usansoloko edo udalaz gaindiko programetan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakunde edo elkarteentzat, baldin eta Usansoloko biztanleentzat zuzeneko eragina badute. Usansoloko jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoak eta nortasun juridikorik gabeko taldeak ere onartzen dira.

3.2.9. 6.1 lerroa. Gizarte-larrialdietarako laguntzak

- a) Xedea: Eusko Jaurlaritzaren 199/1999 Dekretuan edo hori ordeztzen duen araudian definitutako laguntzak. Gaur egun, prestazio horiek ez dira aldizkakoak, ekonomikoak eta dirulaguntzak dira, eta gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifiko arruntei edo ohiz kanpokoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonentzat dira.
- b) Nori zuzenduta: Usansoloko errolatutako eta EAEn gutxienez bizi diren pertsona fisiko indibidualak, hala nola familia-unitate batean integratutako subjektu gisa.

3.2.10. 7.1 lerroa. Auzo-elkarteak mantentzeko laguntzak

- a) Xedea: Auzotarren interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko berariazko elkarteak mantentzeko laguntzak. Laguntzen xedea da gastu orokorrak eta elkartearen jardueren kudeaketa orokorra estaltzea.



- b) Nori zuzenduta: Berariazko estatus hori duten auzo-elkarteak, Auzo Elkarteen Udal Erregistroan behar bezala erregistratuak.
- 3.2.11. 8.1. lerroa. Ingurumena kontserbatzeko eta osasun publikorako laguntzak
 - a) Xedea: Osasun publikoaren babeserak bermatzeko eta, zuzenean edo zeharka, animaliak uzteak dakartzan arazoei aurre egiteko eratzen diren auzo-elkarteen-tzak laguntzak, ingurumenaren eta osasungarritasun publikoaren babesaren arloko eskumenak gauzatzearen esparruan, autonomia-erkidegoko legerian aurreikusitako baldintzetan.
 - b) Nori zuzenduta: Berariazko estatus hori duten auzo-elkarteak, Auzo Elkarteen Udal Erregistroan behar bezala erregistratuak.
- 3.2.12. 9.1 lerroa. Tokiko merkataritzarako laguntzak
 - a) Xedea: Tokiko merkataritzaren jarduerak ekonomikoa sustatzeko laguntzak, bertan laguntzeko dirulaguntzak emanez.
 - b) Nori zuzenduta: udalerriko merkatarien elkarteak.
- 3.2.13. 10.1 lerroa. Eskualdeko eta herriko komunikabideentzako laguntzak
 - a) Xedea: Udal-gaurkotasunarekin eta udalerriko gizarte-bizitzarekin lotutako interes publikoko informazio-edukiak ekoizteko, zabaltzeko eta hobetzeko tokiko komunikabideek garatutako jarduerak finantzatzeko laguntzak, edukiak sortzea eta informazio plurala, eskuragarria eta kalitatezkoa bermatzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak eta profesionalak hobetzea barne. Era berean, laguntza-lerro honen xedea da tokiko komunikazio-eremuan euskara sustatzea eta normalizatzea, euskarazko edukiak landu eta zabaltzen eta baliabide onuradunetan hizkuntzak presentzia eraginkorra izaten lagunduz.
 - b) Nori zuzenduta: eskualdeko eta herriko komunikabideak.

3.3. *Plan estrategikoaren eta udal-aurrekontuaren transferentzien eranskinaren arteko egokitasuna*

Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean lerro bakoitzerako aurreikusitako zenbatekoak Usan-soloko Udalaren urteko aurrekontuan jasotakoak izango dira, Osoko Bilkurak transferentzia eta dirulaguntza arrunten eranskinean onartutako baldintzetan. Beraz, lerro horien indarraldia urteko aurrekontuan onartzearen baldintzapean eta mugatuta geratuko da, onartzen diren baldintzetan.

4. Administrazio-prozedurak normalizatzea, arrazionalizatzea eta sinplifikatzea

Helburu estrategiko horren zentzua behar bezala azalduta, jarraian laburpen eskematiko bat aurkez daiteke, prozedurak definitzeko ildo nagusiak adierazteko, bai emakidaren ordenari dagokionez, bai egiaztapenari eta justifikazioari dagokienez.

4.1. *Norgehiagoka bidezko emakida-prozeduraren eskema*

4.1.1. Deialdiaren aurreko kreditua atxikitzea (eta gastua formalki onartzea). (A FA-SEA)

4.1.2. Deialdia. Organo emailearen izenean: Alkatetzaren Dekretua

4.1.3. Eskabideak behar bezala eta epean aurkeztea (hala badagokio, organo instrukzio-egileak zuzentzeko errekerimendua)

4.1.4. Instrukzioa. Organoa: Dirulaguntza lerroari dagokion aurrekontu-programaren arduradun teknikoak. Instrukzio-egintzak:

- a) Programa edo jarduerak bererako izan daitezkeen beste dirulaguntza batzuei buruzko dokumentuak eta aurrekariak biltzea (batez ere, dirulaguntza zuzenak eta lerro konkurrenteak edo zeharkakoak), gehiegizko finantzaketa egon daitezkeen egiaztatzeko.
- b) Onuradunaren baldintzak (orokorrak eta espezifikoak) betetzen diren aztertzea.



- c) Eskatzaile bakoitzari dagozkion kopuruen kalkulua. Guztiei erantzuteko kreditu erabilgarria nahikoa den ala ez egiaztatzea: nahikoa bada, e) -ra pasatuko da; nahikoa ez bada, d) -ra pasatuko da.
- d) Kide anitzeko balorazio-organoa. Osaera: a) Lehendakaria: dagokion aurrekontu-programaren arduradun politikoa; b) Idazkaria: programa bereko arduradun teknikoa. Txostena egitea, lehentasun-ordena oinarrien eta deialdiaren irizpideen eta haztapenaren arabera finkatuz.
Salbuespen gisa, lehentasun-hurrenkera aplikatzeak berekin dakarrenean aurkeztutako eskabideen erdiak baino gehiagok dirulaguntza osoa emateari uztea, kreditu erabilgarriaren kopurua hainbanatuko da aurkeztutako eskabideen erdia batzen duen eskabide kopuru baten artean, goitik biribilduz; hainbanaketa aplikatzeko irizpidea izango da eskatzaile bakoitzak kreditua nahikoa izan balitz jasoko zukeen dirulaguntzaren ehunekoa.
- e) Organo instruktorearen txostena eta/edo ebazpen-proposamena, aurreko alderdi guztiak adierazita (4.1etik 4.4ra).

4.1.5. Kontu-hartzailtzaren fiskalizazio-txostena (D fasea).

4.1.6. Dirulaguntza eman duen organoaren ebazpena: Alkatetzaren Dekretua, zenbatekoak emateko eta, hala badagokio, ukatzeko.

4.1.7. Esku-hartzea (O. fasea eta P. fasea). Ordainketa aurreratu posiblea, oro har (hala badagokio, oinarrietan aurreikusita)

4.2. *Lehia gabeko emakida-prozeduraren eskema*

4.2.1. Deialdiaren aurreko kreditua atxikitzea (eta gastua formalki onartzea). (A fasea).

4.2.2. Deialdia. Organo emailearen izenean: Alkatetzaren Dekretua. Deialdia itxia, irekia edo iraunkorra izan daiteke.

4.2.3. Eskabideak behar bezala eta epean aurkeztea (hala badagokio, instrukzio-organok akatsak zuzentzeko errekerimendua)

4.2.4. Instrukzioa. Organoa: Dirulaguntza lerroari dagokion aurrekontu-programaren arduradun teknikoa. Instrukzio-egintzak:

- a) Beste dirulaguntza batzuei buruzko dokumentuak eta aurrekariak biltzea, balizko bateraezintasunak egiaztatzeko.
- b) Onuradunaren baldintzak (orokorrak eta espezifikoak) betetzeari buruzko azterketa.
- c) Deialdi itxien kasuan, eskatzaile bakoitzari dagozkion kopuruen kalkulua. Guztiei erantzuteko kreditu erabilgarria nahikoa den ala ez egiaztatzea; nahikoa ez bada, txostenak edo ebazpen-proposamenak hainbanaketa proposatuko du, oinarrietan aurreikusitako irizpidearen arabera. Deialdi irekiaren edo iraunkorraren kasuetan, oinarri arautzaileetan aurreikusitakoaren arabera, «itxaron-zerrenda» sistema bat ezarri ahal izango da kreditua agortzen den kasuetarako.
- d) Organo instruktorearen txostena eta/edo ebazpen-proposamena, aurreko alderdi guztiak adierazita (4.1etik 4.3ra).

4.2.5. Kontu-hartzailtzaren fiskalizazio-txostena (D fasea).

4.2.6. Dirulaguntza eman duen organoaren ebazpena: Alkatetzaren Dekretua, zenbatekoak emateko eta, hala badagokio, ukatzeko.

4.2.7. Esku-hartzea (O. fasea eta P. fasea). Ordainketa aurreratua ezin izango da orokorrean egin.

4.3. *Zuzeneko izendunetan emateko prozeduraren eskema*

4.3.1. Kredituaren atxikipena (eta gastuaren onarpen formal) (A fasea).



4.3.2. Ofizioz hasia dirulaguntzaren lerroari dagokion aurrekontu-programaren ardura duen zinegotziaren proposamenaren bidez, edo interesdunak eskatuta hasia, alderdiak eskatuta.

4.3.3. Instrukzioa. Organoa: Dirulaguntza lerroari dagokion aurrekontu-programaren arduradun teknikoak. Instrukzio-egintzak:

- a) Programa edo jardura bererako izan daitezkeen beste dirulaguntza batzuei (zuzenekoak edo norgehiagokakoak) buruzko dokumentuak eta aurrekariak biltzea, posible den egiaztatzeko.
- b) Onuradunaren betekizun orokorrak betetzen diren aztertzea.
- c) Hitzarmen arautzailerako proposatutako testua edo, hala badagokio, ebazpen-proposamena egitea. Artikuluko eduki guztiekin. RGSko 65.3 a).

4.3.4. Kontu-hartzailetzaren fiskalizazio-txostena (D fasea).

4.3.5. Hitzarmen Arautzailea sinatzea edo, hala badagokio, emateko Ebazpena ematea (Alkatetzaren Dekretua)

4.3.6. Esku-hartzea (O. fasea eta P. fasea). Ordainketa aurreratu posiblea, oro har (hala badagokio, hitzarmen arautzailean, ebazpenean edo HPBn aurreikusita)

4.4. *Zuzeneko emakidaren salbuespenezko prozeduraren eskema*

4.4.1. Ofizioz hasia, dirulaguntzen lerroari dagokion aurrekontu-programaren ardura duen zinegotziaren proposamenaren bidez (dirulaguntzaren izaera berezia eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak justifikatuz, bai eta deialdi publikoaren zailtasuna justifikatzen duten beste arrazoi batzuk ere), eta, era berean, kasuetarako egokitasuna justifikatzea.

4.4.2. (Alderdi batek eskatuta hasiz gero soilik) Dagokion aurrekontu-programaren arduradun politikoa den zinegotziaren azalpen-memoria, dirulaguntzaren izaera berezia eta interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa egiaztatzen duten arrazoiak justifikatuz, bai eta deialdi publikoaren zailtasuna justifikatzen duten beste arrazoi batzuk ere, eta, era berean, ordenantzan aurreikusitako kasu espezifikoei sartzeari justifikatuz.

4.4.3. Kredituaren atxikipena (eta gastuaren onarpen formala) (A FASEA)

4.4.4. Instrukzioa. Organoa: Dirulaguntza lerroari dagokion aurrekontu-programaren arduradun teknikoak. Instrukzio-egintzak:

- a) Programa edo jardura bererako izan daitezkeen beste dirulaguntza batzuei (zuzenekoak edo norgehiagokakoak) buruzko dokumentuak eta aurrekariak biltzea, gehiegizko finantzaketa egon daitekeen egiaztatzeko.
- b) Onuradunaren baldintza orokorrak betetzen diren aztertzea, eta Ordenantzan jasotako kasu zehatzetan sartzeari.
- c) Txostena eta/edo ebazpen-proposamena egitea.

4.4.5. Kontu-hartzailetzaren fiskalizazio-txostena (D fasea).

4.4.6. Dirulaguntza emateko Ebazpena ematea (Alkatetzaren Dekretua).

4.4.7. Esku-hartzea (O. fasea eta P. fasea). Ordainketa aurreratua egin ahal izango da oro har (hala badagokio, Ordenantzaren arau espezifikoei sartzeari).

4.5. *Dirulaguntza justifikatzeko eta egiaztatzeko prozedura bakarraren eskema*

4.5.1. Egiaztagirak epe barruan aurkeztea

4.5.2. Instrukzioa. Organoa: Dirulaguntza lerroari dagokion aurrekontu-programaren arduradun teknikoak. Instrukzio-egintzak:

- a) Datuak biltzea eta programa edo jardura bererako beste dirulaguntza batzuk aldi berean jaso ote diren egiaztatzea, baldin eta gehiegizko finantzaketa egon dela adieraz badezakete.
- b) Azpikontratazioan gehiegikeriak egon daitezkeela egiaztatzea.
- c) Jardura egin dela eta helburua bete dela egiaztatzea, edo, hala badagokio, egoera edo portaera berezi jakin bat gertatu dela egiaztatzea.



- d) Justifikazio-kontua, hala badagokio, eta kontu horri erantsitako dokumentuak egiaztatzea. Justifikazio-kontu sinplifikatuaren kasuan, oinarrietan aurreikusitako laginketa-teknikak aplikatzea. Bestelako justifikazio-modalitateen kasuan, dokumentazioa egiaztatzea, kasu bakoitzean eskatzen denaren arabera.
- e) Txostena eta/edo ebazpen-proposamena, aurreko alderdi guztiak adierazita (a) tik d) ra), eta, hala badagokio, itzulketa-espedientea hastea (oso edo partziala) eta, hala badagokio, emakida-ebazpena aldatzea proposatuz.

4.5.3. Kontu-hartzailetzaren txostena, dirulaguntzaren aplikazio materialari buruzkoa.

4.5.4. Egiaztapen-organoaren ebazpena (laguntza eman duen organo bera. Alkateztaren dekretua), egiaztapen-espedientea onartuz eta, hala badagokio, itzulketa-espedientea abiaraztea edo emakida-egintza aldatzea xedatuz.

5. Aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak

Usansoloko Udalak emandako dirulaguntzak aztertu ondoren, hurrengo dirulaguntza izendunak eta norgehiagokakoak daude.

Dirulaguntzak / Subvenciones				
Izendapena Denominación	Helburu estrategikoa Objetivo estratégico	Emakidaren modalitatea Modalidad de concesión	Aurrekontu partida Partida presupuestaria	Urtekoa Anual (€)
1. KULTURA / CULTURA				
Dirulaguntza izenduna Aztiak antzerki taldeari Subvención nominativa a la Asociación de Teatro Aztiak	Antzerkia sustapena Promocionar el Teatro	Izenduna Nominativa	3342.48100	1.800,00
Dirulaguntza izenduna Lamintxu Gazte Asanbladari Subvenciones nominativa a la Gazte Asanblada de Usansolo	Gazleria eta kulturaren sustapena Promoción de la juventud y de la cultura	Izenduna Nominativa		7.000,00
Dirulaguntza izenduna Oinarin dantza taldeari Subvención nominativa a Oinarin Dantzari Taldea	Euskal dantzen eta folkloreaken sustapena Promocionar la danza vasca y el folclore	Izenduna Nominativa	3342.48101	6.000,00
Dirulaguntza izenduna Gazteberri Subvención nominativa a Gazteberri	Ekitaldi eta jarduera kulturalak (gabonak) antolatzea Actividades puntuales y actividad general (Gabonak...)	Izenduna Nominativa	3342.48102	7.000,00
Dirulaguntza izenduna Ujabari Subvención nominativa a UJABA	Usansoloko jaietako programazioa egitea Confección de la programación de Fiestas de Usansolo	Izenduna Nominativa	3381.48111	44.500,00
Dirulaguntza izenduna Usgalduri Subvención nominativa a «USGALDU»	Usansolon gaita eta erraldoiak sustatzea Promoción de la gaita y gigantes en Usansolo	Izenduna Nominativa	3342.48110	7.000,00
Dirulaguntza izenduna Orfeoari Subvención nominativa a Orfeon	Usansolon kantua sustatzea Promocionar el canto en Usansolo	Izenduna Nominativa	3341.48110	2.000,00
Musika ikasteko banakako beka Becas individuales para el estudio de la música	Eskola ofizialetan edo kontserbatorio homologatueta musika-ikastaroak egin daitezkeen sustatzea. Promocionar la realización de cursos de música en escuelas oficiales o conservatorios homologados.	Lehiarik gabeko konkurrentzia Concurrencia no competitiva	3261.48001	20.000,00
2. KIROLA / DEPORTES				
Dirulaguntza izenduna Usansoloko esku pilota taldeari Subvención nominativa a Usansolo Esku Pilota	Urteko gastuetan laguntzea eta esku pilota sutatzea Ayudar en gastos de temporada/Fomentar la pelota a mano como actividad deportiva	Izenduna Nominativa	3411.48116	15.000,00
Dirulaguntza izenduna Txoribeltz saskibaloia taldeari Subvención nominativa a Txoribeltz Saskibaloia Taldea	Urteko gastuetan laguntzea Ayudar en gastos de temporada	Izenduna Nominativa	3410.48107	10.000,00
Dirulaguntza izenduna Umore Ona futbol taldeari Subvención nominativa a CD Umore Ona	Urteko gastuetan laguntzea Ayudar en gastos de temporada	Izenduna Nominativa	3410.48101	20.500,00
Dirulaguntza izenduna U113 Triatloi Taldeari Subvención nominativa a Usansolo U113 Lekubaso Triatloi Kluba	Usansolon atletismoa sustatzeko hainbat ekitaldi antolatzea eta/edo horietan parte hartzea Organización y/o participación en eventos varios, con el objetivo de fomentar el atletismo en Usansolo	Izenduna Nominativa	3410.48102	15.000,00
Dirulaguntza izenduna Burtotza mendi taldeari Subvención nominativa a Burtotza Mendi Taldea	Urteko gastuetan laguntzea eta mendiako ibilbideak seinalatzatzea Ayudar en gastos de temporada y para la señalización de rutas.	Izenduna Nominativa	3410.48103	3.500,00 €
Dirulaguntza izenduna Usansoloko racing taldeari Subvención nominativa a Usansolo Racing Taldea	Ekitaldiak antolatzea eta parte hartzea Organización y/o participación en eventos varios	Izenduna Nominativa	3410.48107	2.000,00
Dirulaguntza izenduna UFS taldeari Subvención nominativa a UFS Usansolo	Urteko gastuetan laguntzea Ayudar en gastos de temporada	Izenduna Nominativa	3410.48108	8.500,00



Dirulaguntzak / Subvenciones				
Izendapena Denominación	Helburu estrategikoa Objetivo estratégico	Emakidaren modalitatea Modalidad de concesión	Aurrekontu partida Partida presupuestaria	Urtekoa Anual (€)
Dirulaguntza izenduna Usansoloko athletick taldeari Subvención nominativa a Peña Athletic	Ekitaldi desberdinak eta kirol eguna antolatzea Actividades puntuales y organización del día del deporte.	Izenduna Nominativa	3342.48103	1.400,00
3. HEZKUNTZA / EDUCACIÓN				
Dirulaguntza izenduna Unkina HLHI eskolari Subvención nominativa a UNKINA HLHI	Ekitaldiak antolatzea eta parte hartzea eta ikastaro arautuak kudeatzea Organización y/o participación en eventos varios y cursos reglados	Izenduna Nominativa	3410.48116	14.875,00
4. EUSKARA / EUSKERA				
Dirulaguntza izenduna Apario Euskara Taldeari Subvención nominativa a Apario Euskara Taldea	Ekitaldiak antolatzea eta parte hartzea eta ikastaro arautuak kudeatzea Organización y/o participación en eventos varios y gestión de cursos reglados	Izenduna Nominativa	3352.48100	7000,00
Euskara ikasteko banakako bekak Becas individuales para el estudio de euskera	HABEk homologatutako euskara-ikastaroak edo barnetegiak sustatzea Promocionar la realización de cursos de euskera en euskategis o barnetegis homologados por HABE	Lehiarik gabeko konkurrentzia Concurrencia no competitiva	3353.48002	12.000,00
5. BERTINTASUNA / IGUALDAD				
Dirulaguntza izenduna Subvención nominativa a Mirari Emakume Taldea	Emakumeak ahalduztzeko ikastaroak antolatzea Organización de cursos para el empoderamiento de la mujer	Izenduna Nominativa	2315.48101	3100,00
6. GIZARTE EKINTZA / ACCIÓN SOCIAL				
Dirulaguntza izenduna Usansoloko Laguntza Elkarteari Subvención nominativa a Banco de Alimentos (ULE)	Laguntza Elkarteari urteko gastuei aurre egiteko laguntza Ayudar en gastos generales/ordinarios al banco de alimentos.	Izenduna Nominativa	2319.48118	5.000,00
Dirulaguntza izenduna Gure Etxea Nagusien Elkarteari Subvención nominativa a Gure Etxea de Usansolo	Nagusien elkartari urteko gastuei aurre egiteko laguntza Ayudar en gastos generales/ordinarios a la asociación de jubilados.	Izenduna Nominativa	2313.48113	3.000,00
Gizarte larrialdietarako laguntzak (GLL) Ayudas de emergencia social (AES)	Gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoak aurre egiten laguntzea, gastu horiek ohikoak edo apartekoak izan. Colaborar para hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de marginación social.	Lehiarik gabeko konkurrentzia Concurrencia no competitiva	2311.48003	103.889,51
7. AUZOKO ELKARTEAK / ASOCIACIONES VECINALES				
Dirulaguntza izenduna Gorosibaiko Auzo Elkarteari Subvención nominativa a AA VV Gorosibai	Gorosibaiko auzo elkartari urteko gastuei aurre egiteko ematen zaion laguntza. Ayudar en gastos generales/ordinarios a la asociación de vecinos de Gorosibai	Izenduna Nominativa	3341.48100	2.500,00
8. INGURUMENA ETA OSASUN PUBLIKOA / MEDIO AMBIENTE Y SALUBRIDAD PÚBLICA				
Dirulaguntza izenduna Usansoloko Katuak elkarteari Subvención nominativa a Usansoloko Katuak	Usansoloko Katuak elkartari urteko gastuetarako ematen zaion laguntza Ayudar en gastos generales/ordinarios a la asociación Usansoloko Katuak	Izenduna Nominativa	3111.48119	12.000,00
9. MERKATARITZA / COMERCIO				
Dirulaguntza izenduna Usansoloko merkataritza Elkarteari Subvención nominativa a la Asociación de comerciantes de Usansolo	Usansoloko merkataritza elkartari urteko gastuetarako ematen zaion laguntza Ayudar en gastos generales/ordinarios a la asociación y gestión de los bonodendas.	Izenduna Nominativa	4310.48001	10.000,00
10. KOMUNIKABIDEAK / MEDIOS DE COMUNICACIÓN				
Dirulaguntza izenduna Binke komunikabideari Subvención nominativa al medio de comunicación Binke.	Euskararen erabilera soziala indartzea, informatzen duten tokiko hedabideei lagunduz. Reforzar el uso social del euskera apoyando a los medios locales que informan en esta lengua.	Izenduna Nominativa		5.000,00
Dirulaguntza izenduna Geuria komunikabideari Subvención nominativa al medio de comunicación Geuria.	Euskararen erabilera soziala indartzea, informatzen duten tokiko hedabideei lagunduz. Reforzar el uso social del euskera apoyando a los medios locales que informan en esta lengua.	Izenduna Nominativa		3.500,00

Dirulaguntzetara bideratutako zenbatekoak funts propioekin finantzatu dira, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak izan ezik (6.1 lerroa), horien finantzaketa Autonomia Erki-



degoko Administrazioaren kontura izan baita. Aurreikusten da horrela izaten jarraituko duela etorkizuneko ekitaldietan, Plan Estrategikoa indarrean dagoen bitartean.

7. Ekintza-plana

Plan honen helburu orokorra dirulaguntzen arloko udal-esparru arauemaile berri bat ezartzea da. Esparru horren ildo orokorrak eta egitura zehaztuta geratu dira, eta arau-esparru berri horren edukien zati garrantzitsu bat ere zirriboratu da.

Planaren helburu zehatz batzuk lortzea Plan beraren barruan ebatzita dagoela esan daiteke. Horrela, dirulaguntza lerroen definizio eta antolamendu sistematikoa 3. atalean aurkeztutakoarekin bukatutzat jo daiteke. Beste horrenbeste esan daiteke prozeduren normalizazioari eta arrazionalizazioari dagokionez; izan ere, modu eskematikoan adierazita ere, gaiari funtsean erantzun zaiola esan daiteke.

8. Jarraipenerako eta etengabeko ebaluaziorako araubidea

8.1. Dirulaguntzen udal datu-basea

Plan Estrategikoa eraginkorra izan dadin, eta dirulaguntzei buruzko araudi berria aplikatzean udal-arloetako jarduna koordinatzeko tresna izan dadin, eta, horrela, araudi hori ebaluazio-araubide baten pean jarri ahal izateko, Dirulaguntzen Udal Datu Base bat sortuko da, barne-kudeaketako tresna gisa nahiz, hala badagokio, informazioa emateko bitarteko gisa erabiliko dena.

- a) Lehia-araubidean emandako dirulaguntzak arautzeko oinarrien eta egindako deialdien erreferentzia.
- b) Sinatutako hitzarmenen erreferentzia eta emandako ebazpenak, zuzenean emandako dirulaguntzen kasuan.
- c) Emandako eta benetan jasotako dirulaguntzaren onuradunen identifikazioa.
- d) Hartzaile bakoitzean dirulaguntza jaso dezaketen hainbat lerrori buruzko erreferentzia eta datuak.
- e) Egiaztapen- eta justifikazio-prozeduren ebazpenen erreferentzia, horien emaitza adierazita.
- f) Dirulaguntzak emateko ebazpenak zati batean aldatzeko ebazpenak, itzulketak ebazpenak, hala badagokio, osorik edo zati batean, eta, hala badagokio, zehapen-prozedurak eta -ebazpenak.
- g) Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako debekuren baten eraginpean dauden pertsonen identifikazioa.

Horrela, Plan Estrategiko honen bidez, Dirulaguntzen Udal Datu Base bat eratzea sustatzen da, emandako dirulaguntza guztiak jasoko dituen, eta udal-arloek eremu horretan sortzen dituzten datuak eta informazioa jaso beharko dituzte. Datu-base horretan jasotako datuak Udal Kontu-hartzaileak fiskalizatu ondoren Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera (BDNS) bidaliko direnak izango dira.

Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari dagokionez, agindu orokor bat dago DLOn eta SKSn. Horretaz gain, Dirulaguntzen Datu-base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoen publizitatea arautzen dituen martxoaren 8ko 130/2019 Errege Dekretuak Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari eman beharreko edukia eta zehaztapen teknikoak zehazten ditu, eta Administrazio Publikoek emandako dirulaguntzei buruzko datuak estatistika- eta informazio-ondorioetarako txertatzeko legean eta erregelamenduan ezarritako betebeharra bideratzen du. Usansoloko Udalar, dirulaguntzak kudeatzen eta ematen dituen Herri Administrazioa den aldetik, BDNSra datuak bidaltzeko betebeharra dagokio.

8.2. Plan estrategikoaren ebaluazioa

Plan Estrategiko honek lau urteko indarraldia izango du, 2024tik 2028ra.

Planaren indarraldia amaitu ondoren, eta hurrengo egin aurretik, diruz lagundu daitezkeen ildoei dagokien udal-arlo bakoitzak azalpen-memoria bat egin beharko du diru-



laguntzen araubide formal berriaren aplikazioari buruz, eta, hala badagokio, sortutako zailtasunak eta horiek nola jorratu diren adierazi beharko du. Era berean, dirulaguntzak ematean eta lortu nahi diren helburu eta efektuak lortzean izandako eraginkortasunari eta efizientziari buruzko atal bat sartu beharko da, eta, hala badagokio, ondorioak, proposamenak edo iradokizunak egin beharko dira hurrengo Plan Estrategikoa egiteko.

Arlo bakoitzak eredu beraren arabera egindako memoria partzialak Plan Estrategikoaren Ebaluazio Memoria Orokorrean sartuko dira. Memoria hori dirulaguntzen hurrengo Plan Estrategikoa egiteko eta formulatzeko oinarritzko dokumentua izango da.